

GERNIKA-LUMO / Liburutegia kalera aterako dute hilabetez

Hurrengo asteko astelehenean hasi eta abuztuaren 13ra arte Foru plazan ere emago dute liburutegi zerbitzua.

O. CABELLO

Gernika-Lumoko Udal liburutegiak zerbitzu berezia emango du datorren astelehenetik aurrera. Izan ere, hilabetez liburutegia kalera aterako dute. Horrela, Foru plazan ere emango dute liburutegi zerbitzua, hilabetez. Liburuak zein DVDak izango dira liburutegiko erabiltzaileen eskura, kalean bertan, maileguan hartzeko moduan.

Aurreko urteetan ere atera izan dute liburutegia kalera. Oraingo honetan abuztuaren 13ra arte luzatuko da aukera hori.

Dena den, udako zerbitzu berezi hori goizez bakarrik emango du liburutegiak: 10:30etik 13:30era.